

Asunción klinikaren auzia bideratzek lan-mahaia osatzea

Asuncion Klinika pribatuak ematen duen osasun zerbitzuak, herriko eta eskualdeko erabiltzaile, eragile, alderdi politiko eta baita Klinikako langileengan sortzen duen kezka irtenbide bat bilatzeko beharra nabarmen agertu zen Martxoaren 12ko Udalbatza aretoan egin zen Osasungintzako Batzar Irekian.

Kezka hori dela eta, eragileek bileran eginiko proposamenak kontuan hartuta, Asunción klinikaren egoeraz eta auziaz gogoeta egiteko mahai zabal bat antolatzea egokia izan daiteke. Izan ere, Tolosalderako defendatzen dugun osasun-zerbitzu publiko, doakoa eta kalitatezkoa bermatzea da Batzarrean juntatu ziren guztien helburua

Guzti honengatik mozio hau aurkezten dugu, Udalbatzak Osoko Bilkuran

ONARTU DEZAN:

Eskualdeko Udalak, gizarte-eragileak, Klinikako langileen ordezkari diren sindikatuak, eta Alderdi politikoak bilduko dituen LAN MAHAIA eratzea, Tolosaldeako Osasun zerbitzua aztertzeke eta arazoari konponbide bat adosteko.

Inaki Irazabalbeitia, EHBildu bozeramailea

